

EJZ	JARDUERA EKONOMIKOA
0 atala	Abeltzaintza independentea.
-	Azienda hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.
-	-Nekazariak edo abeltzainak egiten dituzten bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak, betiere balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezitik kanpo baldin badaude.
-	-Basogintzako jardueretako titularrek egiten dituzten bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarriak, betiere balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezitik kanpo baldin badaude.
-	Apartzeria araubideko nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
-	Apartzeria araubideko basogintzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
-	Produktu natural, begetal edo animalia-produktuen transformazio-, elaborazio- edo manufaktura-prozesuak, baldin eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetan jarduera industrialei dagokien epigrafeetako batean alta emanda egotera behartuta badaude eta prozesuak egiten dituztenak badira produktu natural horiek zuzenean lortzen diren ustiategien titularrak.
642.1, 2 eta 3	Txikizkako harakinek urdaitegiko produktuak prestatzea.
642.5	642.5 epigrafean oilaskoak erretzeagatik matrikulaturiko txikizkako merkataria.
644.1	Ogia, pastelak, gozokiak eta antzekoak eta esnea eta esnekiak txikizka saltzea.
644.2	Ogiaren, ogi berezien eta opilen saltokiak.
644.3	Pastelen, opilen eta gozogintzako gaien txikizkako merkataritza.
644.6	Ore frijituen (estalkia edo betegarria izan ala ez), patata frijituen, zizka-mizken, fruitu lehorren, gozokien, txokolatekien eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza.
647.1, 2 eta 3 652.2 eta 3 eta	647.1, 2 eta 3, 652.2 eta 3 eta 662.2 epigrafeetan matrikulaturiko txikizkako merkataria loteria merkaturatzeko zerbitzuagatik.

662.2	
653.2	Bere jarduerako artikuluen konponketak, 653.2 epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkatariek eginak.
653.4 eta 5	Eraikuntzako materialen, saneamenduko gauza eta altzarien, ateen, leihoen, pertsianen eta abarren txikizkako merkataritza
654.2	Lurreko ibilgailuetarako osagarrien eta ordezeko piezen txikizkako merkataritza.
654.5	Edonolako makineriaren txikizkako merkataritza (salbu eta etxerako tresnak, bulegokoak, gailu medikoak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak).
654.6	Edonolako ibilgailuetarako gurpil-estalki, banda eta bandaje eta aire ganbaren txikizkako merkataritza, aipatu artikuluen handizkako merkataritza izan ezik.
659.3	Txikizkako saltzaileak, 659.3 epigrafean matrikulatuta daudenak, negatiboak eta inprimatutako bestelako material fotografikoa bildu, hirugarrenen laborategian prozesatu eta kopiak nahiz handitzeak dagokionari entregatzeagatik
659.4	659.4 epigrafean matrikulaturiko txikizkako saltzaileak garraio publikoaren txartelak, telefono txartelak, antzekoak eta loteria merkaturatzeagatik.
663.1	Saltegi iraunkor batetik kanpora, ore frijituen (estalkia edo betegarria izan ala ez) patata frijituen, zizka-mizken, fruitu lehorren, gozokien, txokolatekien eta edari freskagarrien txikizkako merkataritzan baizik aritzen ez direnak, betiere instalazioan edo ibilgailuan bertan bere produktuak (txurroak, patata frijituak eta gaztainak) prestatzeko baimena badute.
671.4	Bi sardexkako jatetxeak.
671.5	Sardexka bateko jatetxeak.
672.1, 2 eta 3	Kafetegiak.
673	Kafetegi eta tabernetako zerbitzuak.
675	Merkatuetan edo azoketan eta bide publikoan edo lorategietan (aire zabalean) kokaturiko kiosko, kutxa, txosna edo antzeko beste lokaletako zerbitzuak.
676	Txokolate-denda, izozki-denda eta hortxata-dendetako zerbitzuak.

681	Izar bateko edo biko hoteletako ostatu zerbitzua.
682	Hostal eta ostatu-etxeetako ostatu zerbitzua.
683	Landetxeetako ostatu zerbitzua
691.1	Etixerako tresna elektrikoen konponketa.
691.2	Automobilen, bizikleten eta beste ibilgailu batzuen konponketa.
691.9	Oinetakoen konponketa.
691.9	B.p.s.g.ko beste kontsumo-ondasun batzuen konponketa (oinetakoen konponketa eta artelanen, altzarien, antigoalekoen eta musika tresnen zaharberritzea izan ezik).
692	Industriako makinen konponketa.
699	B.p.s.g.ko beste konponketa batzuk
721.1 eta 3	Hirietako garraio kolektiboa eta bidaiarien errepide bidezko garraioa.
721.2	Autotaxi bidezko garraioa.
722	Salgaien errepideko garraioa.
751.5	ibilgailuak koipeztatu eta garbitzea.
757	Aldaira zerbitzuak.
849.5	Mezuen eta mandatuen garraioa, jarduera hori bakar-bakarrik norberaren garraiobideekin egiten denean.
933.1	Lurreko eta uretako ibilgailuak, ibilgailu aeronautikoak eta abar gidatzen irakastea.
967.2	Kiroletan trebatzeko eskolak eta zerbitzuak.
971.1	Egindako arropen eta etxerako arropa eta tresna erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, garbiketa eta lisaketa.
972.1	Emakume eta gizonendako ile-apaindegi zerbitzuak.
972.2	Apaindegiak eta estetikako kabineteak.
973.3	Fotokopiagailuekin dokumentuak kopiatzeko zerbitzuak.